

ANAITASUNA

287. zenb.

1974.eko abenduaren 15ekoa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5
Tel. 23 74 49 - Apart. 495



Olentzaro menditik, Olentzaro kalera... Herri eta hirietan prediku egitera. Urtero bezala, aurtan ere ba dakar arbasoen* oihartzunik,* urruti ilun batetiko hitz ezkuturik...* Olentzaro etorri zaigu herrira. Jesus jaio omen da. Hori jakin da mendi-basoetan.

Olentzaro mundu berri baten predikari bezala agertu izan da euskal ipuin eta alegia* zaharretan: jentil herria hil da, kristau herria da etorkizuna. Herriaren kontzientziak horrelaxe —alegi bidez eta ipuinetan— agertu du aldaketaren zentzua. Aldaketa hura,* zerbait sakon eta etorkizun handiko bezala azaldu zitzaion gure herri eskolatu gabeari. Eta, arrazonketa bidez ezin zuenez, ipuinetan eman zuen historiaren hari ezkutua.

Olentzarok etorkizunaren sua ematen dio gizarteari, ipuinek diotenez. Ote sortari su eman, Gabon enborra irazeki:* horixe egiten du Olentzarok. Eta, giza irudia utzirik, enbor* gori bezala ere agertu ohi da toki batzuetan. Mundu berriaren sua, noski.

Herriaren kontzientzi berriztapenaren garai hauetan, lanaren fruitu izanen da etorkizuna, guztion ahaleginen etekina.*

**Olentzaro joan zaigu
mendira lanera,
intentzioarekin
ikatz egitera.
Aditu duenean
Jesus jaio dela,
lasterka etorri da
parte ematera.**

Ipuinaren barnean, egia. Mitoaren golkoan, giza ametsa. Goazen, bai, kalera, gertatuaren parte herriari ematera.

Antso AMAIUR